

Irakurle agurgarria,

Maristak Durango Ikastetxeak, Kudeaketa Sistema Integralaren baitan dagoen Ingurumen Kudeaketa Sistemaren bitartez bideratzen du bere ingurumen-portaera. Hauek dira jarraitzen ditugun ildo nagusiak:

- ☐ Indarrean dagoen araudia.
- ☐ Alde interesatuen parte-hartzea.
- ☐ Ingurumen errendimenduaren etengabeko hobekuntza, gure jarduera eta zerbitzuek eragin ditzaketen aztarnak gutxiagotzea edota ezereztatzea.

Etengabeko hobekuntza hau, Bizi Zikloan oinarrituz eta helburuen planifikazioa, proiektu eta zerbitzuen abiatzea eta garapena, neurketa eta egiaztapenaren baitan gauzatzen dugu.

Ondoren ikus ditzakezu ikasturte honetan zehar Maristak Durango ikastetxeak izandako jasangarritasun jokaera (2024ko Maiatza – 2025eko Apirila).

Agur bero bat,




maristak
Maristak Durango
Maristak Euskadi Fundazioa

Egoitz Mezo Etxebarria
Maristak Durango Ikastetxeko Jasangarritasun arduraduna


Durango, 2025.eko uztailaren 1a

ENERGIA ETA UR HORNIDURA




 Ikasturte honetarako jarritako helburuak lortu ditugun arren, egonkortze fase batean gaudela ikusten da. Aurrerantzean jaitsierak lortu nahi izanez gero, instalazioak sektorizatu, monitorizatu eta eguneratu beharko ditugu, eta horretarako inbertsioak egin beharko dira.			
Gasa (KWo/Ikasle)	297,48	-14,24%	Gasaren kontsumoa aldakorra da, eta neguan jasandako tenperaturen baitan dago. Aurtengo negua berandu heldu zan arren, tenperatura hotzak izan ditugu eta maiatzean zehar ere berogailuak pizteko beharrezana egon da. Grafikoan ikus daitekeen bezala, kontsumoaren egonkortze mailara heldu gara.
Argindarra (KWo/Ikasle)	160,57	-1,17%	Argindarraren kontsumoa egonkortze mailan dago, aurten izandako gorakada txikia, tailerren erabilera areagotzeak eragin du, soldadura tailerrak erabilera handiagoa izan baitu.
Ura (m3/Ikasle)	1,36	-16,78%	Uraren kontsumoak behera egin du, aurreko hiru urteetako batezbestekoa kontutan izanda, baina iazkoaren parean dago. Uraren erabileran ere egonkortze fasean gaudela esan dezakegu.
 Argiteriaren %78a LED motakoa da gaur egun.			
Iraganean martxan jarritako ekintzek gauden mailara ekarri gaituzte. Hobekuntza nahi izanez gero, inbertsio berriak aurrera eramane beharko dira.			

BULEGOKO MATERIALAREN HORNIDURA



	Bulegoko materialaren erabilera jasangarria egin dugula esan dezakegu. Paperena izan dugu joera negatibo bakarra, baina honek badauka bere arrazoia, eta ondoren azalduko dugu. Rotulki eta pilen kasuan, joera argia ez den arren, iazkoarekin alderatuta, jaitsierak lortu ditugu.		
Papera (Tako/Ikasle)	0,424	+24,14%	- Ez dugu ezarritako helburua lortu. - Aurtekogo kontsumo igoera, irailean izandako internet konexio arazoarengatik izan da. Hiru astetan zehar internet barik egon ginen, eta digitalizatuta dagoen material asko paperean banatu behar izan genuen.
Arbeleko rotulki (Kg/Ikasle)	0,571	-14,69%	Rotulkien erabilerak beherantz egin du, baina azken 5 urteetakoaren mailan dago.
Pilak (Unitate/Ikasle)	0,075	-19,00%	Pilen kontsumoa aldakorra izan ohi da, eta aurten jaitciera nabarmena, izan dugu.
	Internetara konexioa hiru astez galtzeak, paper gehiago erabiltzera eraman gaitu.		
	Iraganean martxan jarritako ekintzek gauden mailara ekarri gaituzte. Hobekuntza nahi izanez gero, ekintza berriak aurrera eraman beharko dira.		

ARRISKUTSUAK EZ DIREN HONDAKINAK




- Organikoa
- Ontzi arinak
- Errefusa
- Papera/Kartoia
- Suntsitutako papera

	Aurreko urteetako datuekin alderatuta, ikastetxeko hondakin banaketa maila, kantitatea eta kalitatea kontutan izanda egonkortze maila baten murgildu gara.	
Suntsitutako papera (Kg/Ikasle)	0,65	-5,36%
Birziklatutako paper/kartoia (Kg/Ikasle)	0,92	-34,45%
Errefusa (Kg/Ikasle)	0,34	-14,29%
Ontzi arinak (Kg/Ikasle)	0,36	-0,96%
Organikoa (Kg/Ikasle)	0,89	-2,94%

	Puntu garbiak, organikoaren bilketa eta ikasturte hasierako sentsibilizazioa.
---	---


HONDAKIN ARRISKUTSUAK



	Aurreko hiru urteetako bataz-bestekoarekin alderatuta aspektuen joera positiboa da, baina egonkortze momentu batean sartzen gabiltzala dirudi. Sentsibilizazioa ezinbestekoa da, adierazleak mantendu eta hobetze aldera.		
Kutsatutako xur. (Kg/Ikasle tailer)	0,20	-29,07%	● Kutsatutako xurgatzaile hondakinen kantitateak iazkoaren pareko mantendu da, joera egonkortuz.
Ur hondakina (Kg/Ikasle tailer)	0,47	-62,82%	● Tailerra garbitzeko sistema aldatu dugu, eta honek, ur erabilitako ur kantitatea murriztea, eta hortaz erabilera eraginkorragoa egiten dugula esan daiteke.
Lanpara (Kg/Ikasle)	0,04	-27,78%	● Lanpara hondakinak beheranzko joera azaltzen du, baina hau, LED-era aldatzen den lanpara kopuruaren arabera izaten da.

	Zorua garbitzeko sistemaren aldaketa.
	Xurgatsaileen erabilera arduratsua sustatzeko, tailerre mekanikoetan egndako sentsibilizazioa.

KARBONO AZTARNA



	Jarrita genuen helburua lortu dugu.		
Karbono aztarna (t CO2 ba./Ikasle)	0,1035	-11,88%	Ikasturte honetarako jarritako helburuaren barruan gauden arren, aurten gorakada jasan dugu. Gure jarduera aztertuz gero, kontsumo elektrikoaren gorakada eta lehen aldiz irakasleon eta ikasleen irteerak kontuan hartu dugula ikus dezakegu.
	Nazio Batuen 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lerrokatzea.		

EGINDAKO EKINTZA NABARMENENAK



MARISTAK... y punto, 10 URTE ELKARREKIN PUNTUA EGITEN

Ikasturte honetan MARISTAK... y punto taldeak, 10. urteurrena bete du. Urte hauetan zehar, 150 topaketa baino gehiago antolatu dituzte eta 5.000 jantzitik gora bideratu dituzte gizarte-proiektuetara. Ekoizpenetik haratago, **zaintza eta ongizate emozionala** lantzen ditu zaletasun horrek. **Elkarrekin, kolorea eta berotasuna eman dizkiote zaletasun honi, behar sozialei eta ehungintzaren munduari.**



Durangaldean **mugikortasun eredu berri bat** sustatu nahian, Ikastetxeko langileok, inguruko enpresa eta erakundeetara modu jasangarriagoan joateko **bizikleta elektrikoen erabilera sendotu** dugu.



Mahai interaktiboz eta gelako hiru hormak gailu digital erraldoi bihurtzen dituzten proiektorez hornituriko **gela digital interaktibo berria** martxan dugu; ikaskuntza aktibo-kolaboratiboan aurrera egiteko asmoz, metodologia hau ingurune erabat digitalera ekarrita.



Tailer mekanikoa margotu eta makinak berriztu ditugu. Tailerraren itxura atseginagoa da orain: zabalagoa eta argitsua. Hainbat makina barri erosteaz gain, egozanak doitu eta estetikoki berriztu ditugu.



Erdi mailako Elektrizitateko ikasleen tailerra eta Administarrizako ikasleen gela berriztu ditugu. Banakako eta taldekako lana baimentzen duten mahai eta instalazio berriak jarri.

Azaroak 22 eta 23an Bizkaiko elikagai bankurako **elikagai bilketa erraldoian** parte hartu genuen. Durangaldeko hainbat supermerkatutan burutu zen eta **11 bolondresek** parte hartu zuten.



AENOR

GESTIÓN AMBIENTAL

ISO 14001

Aurten ere ISO 9001:2015 eta ISO 14001:2015 auditoretza gainditu dugu! Bertan antzemandako **indarguneak** besteak-beste:

- Langile guztiak Kudeaketa Sistema Integratuarekin inplikatzeari.
- Erakundearen inplikazioa ingurumenean, bai eta berrerabiltzearen aldeko apustua ere.
- Karbono-aztarnaren kalkuluan 1. eta 2. lortze maila. 3. lortzea kalkulatzeko ematen ari diren urratsak.
- Ingurumen-jardunaren kudeaketa eta ingurumen-kudeaketaren emaitzen analisia.



Bizkaia

Abenduak 17tik 19ra **Kilo Kanpaina**. antolatu genuen. Durangon behar gehien dituzten familientzako **300 produktu** batu ziren eta JAEDen egoitzara eroan genituen ikasle batzuen laguntzarekin.

Urrian zehar, **ikasleek** antolatutako futbol txapelketa solidarioan beste **83 kilo janari** batu ziren.

Inauterietan bestalde, **ikasle talde bolondres** batek Ikastetxean **mozorro bilketa** antolatu zuen, eta **9 poltsa** batu zituzten JAEDentzako.

Otsailak 15ean Ikastetxeko patioan, **Tortilla Solidarioa** antolatu genuen jolastordu bietan eta 25 tortilla saldu genituen.

Antolaketa eta salmentan hainbat **bolondrek parte hartu zuten** eta gure ikasle eta familiei esker **151€ lortu ziren** SED garapenerako gobernu kanpoko erakundeak dituen hainbat proiektuetan laguntzeko.

Ekainak 6an Marcelino Champagnat eguna ospatuz, **paella solidarioa** antolatu genuen. Ikastetxeko langile batzuen artean egin eta langile guztiok dastatu genuen. **355€ batu ziren** SED garapenerako gobernu kanpoko erakundeak dituen hainbat proiektuetan laguntzeko.



Solidaridad | Educación | Desarrollo



Otsailak 5 eta 6an Bidezko merkataritzako hainbat produktu jarri genituen salmentan. **Gure bizimoduan bidezko merkataritzak izan dezakeen garrantziaz jabe izateko** asmoz.

Hainbat irakaslek salmentan parte hartu zuten eta honekin batera, **gure erosketa ohiturek ingurumenean izan dezaketen inpaktuaren garrantziaz ohartarazi genituen gure ikasleak.**

Urtean zehar birritan gerturatu zaigu odol ematearen autobusa eta guztira **60 odol emate** burutu ditugu

